

ESKUAGATX eta ARAMOTZ

Eguzkia joan da bere amagana, bihar etorriko da denbora ona bada. (Dima, Bizkaia)

Eskuagatz eta Aramotz edo Legarmendi mendizerrek Arratiako eskualdea eta Durangaldea banatzen dituzte. Bi mendizerra hauek Olarretako (635 m) lepoan batzen dira. Paisai karstikoa, malkarra eta lakarra dute, non kareharria, atlantiko artea, elorri zuria eta mendiko larre batzuk nagusitzen dira. Beheko kotetan berriz, pagoak, haritzak eta insignis pinuak daude. Bi mendizerrak Urkiolako Parke Naturaleko parte dira eta Anbotoko mendiguneko tontorrekin batera Durangaldeko mendiak izenez ezagunak den konplexu karstiko ederra eta paisai oso polita osatzen dute.

Parkeak Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza, Mañaria eta Aramaioko udalerriak hartzen ditu. Marik, Anbotoko Amak parkeko tontor enblematikoenean du bere bizitokia. Urkiolako Santutegia parkeko bihotzean dago.

Eskuagatz mendizerrako tontor garaiena Errialtabaso (1018 m) mendia da. Arrietabaso izenez ere ezaguna da, Mendebaleko egian Ezkuaga zelaiak daude eta hauetatik datorkio izena mendiguneari. Zelai hauetatik zertxobait Iparralderago Neberazar izeneko antzinako nebera bat zegoen. Iparrenean dagoen mendia Kanpantorreta (1001 m) da eta bere maldetan lapiaz ikusgarri bat dago.

Hegoaldeko isurialdean Baltzolako kobazulo ospetsua dago, eskalatzaileek oso gogoko dutena. Kondairak dioenez kobazulo hau Sugoi eta Mikelatsen bizileku da. Lehena, Sugoi, Sugar edo Herensuge, Mariren bikotekidea da, Mikelats eta Atarrabiren gurasok, zerua suzko igitai edo ilargi erdiaren itxuran zeharkatzen du. Bigarrena, Mikelats, Mari eta Sugoiren seme, kalte handiak eragiten dituzten ekaitzak eta harriteak sortzen dituen jeinu gaiztoa da. Kobazuloaren barrutik ibai bat doa eta Jentilzubi izeneko paraje ederrean berragertzen da, kareharrizko zubi naturalaren ondoan hain zuzen. Jentilzubitik Axlorreko koba ikus daiteke, Bizkaiko arkeologi aztarnategi antzinakoena.

Ipar isurialdea berriz malkartsuagoa da eta Mañaria gainean zakarki altxatzen da.

Leungane (1009 m), altuena eta Mugarra (936 m) oso ezaguna dena eta sai arre kolonia ugaria duena, Aramotz mendizerrako mendi nabarmenenak dira. Biak Mugarrikolanda lepoan bat egiten dute.

ESKUAGATX y ARAMOTZ

El sol ha ido a donde su madre, mañana vendrá si hace buen tiempo. (Dima, Bizkaia)

Las sierras de Eskuagatz y Aramotz o Legarmendi separan las comarcas de Arratia y Duranguesado. Estas dos sierras se unen en el collado de Olarreta (635 m). Tienen un paisaje cárstico, abrupto y áspero, donde predomina la roca caliza, la encina atlántica, el espinoso albar y algunos pastos de altura. Sus cotas inferiores se hallan pobladas de hayas, robles y pinos insignis. Ambas sierras se hallan encuadradas dentro del Parque Natural de Urkiola y junto con las cimas del macizo de Anboto forman los denominados “montes del Duranguesado”, completando un magnífico complejo cárstico y un conjunto paisajístico muy bonito.

El Parque abarca los municipios de Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza, Mañaria y Aramaio. En la cima más emblemática del parque tiene su morada Mari, la Dama de Anboto. En pleno corazón del parque se encuentra el Santuario de Urkiola.

En la Sierra de Eskuagatz la cima más elevada es la de Errialtabaso (1018 m). Este monte también es conocido con el nombre de Arrietabaso. En la ladera Oeste se hallan los prados de Ezkuaga de donde toma el nombre el macizo. Un poco más Norte de estos prados se hallaba la antigua nevera de Neberazar. La cima más septentrional del macizo es la de Kanpantorreta (1001 m), cuyas laderas se hallan abiertas por un impresionante lapiaz.

En la vertiente Sur se hallan la conocida cueva de Baltzola, muy visitada y valorada por los escaladores. Cuenta la leyenda que esta cueva es la morada de Sugoi y de Mikelats. El primero, Sugoi, Sugar o Herensuge, es compañero de Mari, progenitores de Mikelats y Atarrabi, cruza el firmamento en forma de hoz o media luna de fuego. El segundo, Mikelats, hijo de Mari y Sugoi, genio maléfico que forma tormentas y envía pedrisco generando grandes daños. Por el interior de la cueva discurre un río que reaparece en el bonito paraje de Jentilzubi, puente natural de roca caliza. Desde Jentilzubi puede verse el Abrigo de Axlora, se trata del yacimiento arqueológico más antiguo de Bizkaia.

La vertiente Norte sin embargo es más abrupta y se eleva bruscamente sobre Mañaria.

Las cumbres más destacadas de la Sierra de Aramotz son la de Leungane (1009 m), la más alta, y la popular cima de Mugarra (936 m), que cuenta con una numerosa colonia de buitres leonados. Ambas cimas se hallan unidas por el collado de Mugarrikolanda.